

Esp. Zkia.- OZ-2021-32
E.E.- B052-2021-00089
E.E.- 2021-00001

167/2021 DEKRETU ZENBAKIA:

Larrabetzuko udaletxean, 2021eko jorrailaren 20an.

OINARRIA: Martiaren 22ko 131/2021 Alkatetza Dekretuaren bitartez Larrabetzuko Udalak prozedura irekiaren bitartez udaletxeko eraikina eraberritzeko obra proiektua idazteko eta obraren zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu egin zuen.

OINARRIA: Kontrataziorako esleipen prozedurari dagokion iragarkia 2021eko martiaren 23an argitaratu zen Larrabetzuko Udaleko Kontratatzailearen profilean eta 2021eko jorrailaren 30 arteko epea jarri zen proposamenak aurkezteko. Une honetan irekita dago oraindik proposamenak aurkezteko epea eta momentuz ez da lizitatzailerik aurkeztu lehiaketara.

OINARRIA.- 2021eko martiaren 31n EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGOAK txostena igorri du eta Administrazio Baldintza Agiri Zehatzean ezarritako esleitze irizpideak alda daitezen eskatu du. Zehazki, prezioari dagokion balorazio irizpidea gehiegizkoa dela adierazi du, eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 41. Xedapen gehigarria eta 145. Artikuluetan xedatutako bat etorrira, irizpide ez-automatikoaren balorazioa, gutxienez %51 izatea eskatu du.

OINARRIA: EHAEk aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, kontratazio organoak espedientea bertan behera utzi nahi du.

Aztertu dira aurkeztutako agiriak eta Idazkaritzaaren txostena, eta, horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, honakoa **EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Martiaren 22ko 131/2021 Alkatetza Dekretuaren bitartez Larrabetzuko Udalak eta prozedura irekiaren bitartez udaletxeko eraikina eraberritzeko obra-proiektua idazteko eta obra horren zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzu-kontratuaren espedientea bertan behera utzi eta espediente berri bat onartzeko izapidetzea hastea.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri eman prozeduran interesdun diren guztiei.

HIRUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo batzarrean dekretu honen barri emongo da.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea

Nire aurrean / Ante mí
Behin-behineko Idazkaria